



Spanish Bonelli arranoaren populazioa suspertzea

LIFE12 NAT/ES/000701



Bonelli

Bonelli arranoa

Europar...

Foto: Pedro Holgado

Bonelli arranoak (*Aquila fasciata*) erliebe koskatsuko habitat mediterraneoak hartzen ditu Europan, hasi itsasoaren mailatik eta 1500 m-ra arte.

Bere habitatik gustukoenak baso txikiekiko eta sakabanatutako zuhaitzekiko sail irekiak dira, landutako sailekin eta Mediterraneoko sastrakekin nahastuta.

Normalean ebakietan egiten ditu habiak, otsailaren hasieratik ekainaren amaierara arte izaten da ugalketa, eta 37-41 egunez txitatzen du.

Txitak 60-70 egun egoten dira habian, ekainaren erdi aldera hasten dira hegan eta jaiotako lurraldean ibiltzen dira irailera arte.

Gazteak asko hedatzen dira, eta heldutasun sexuala erdiesten dutenean (3-4 urte dituztenean) jaiotako lurraldeetara itzultzeko joera daukate.

Gazteek hedatzeko duten joera horregatik da, hain zuzen ere, zailagoa espezieaz jakitea eta hura kontserbatzeko neurri eraginkorrak aplikatzea. Horregatik beharrezkoa da ahalegin handiagoa egitea gazteen jarraipenean.

Askatasunean 20-25 urte bizi daitezke eta harrapakin ertainak jaten ditu, hegan dabilzala edo lurrian harrapatzen dituelarik: untxiak, korbidoak, antxetak, eperrak, usoak, harrapariak eta beste hegazti batzuk, baita arratoiak eta muskerak ere.

Ugaltzaileak lurraldekoiak, monogamoak eta sedentarioak dira. Lurraldea 40-120 km² artekoa izan daiteke, dagoen elikagaiaren arabera.



© Ernesto Álvarez

Europar Bonelli arranoa espezie mehatxatua da, populazio txikia baitu (920-1100 bikote) eta 1970 eta 1990 artean bere hedapen eremu ia osoan beherakada handia izan baitzuen.



Iberiar penintsulan Europako populazioaren % 65 inguru dago, eta gainerakoa modu irregularrean banatua dago Mediterranioko arroan: Frantzia, Grezia, Italia eta Portugal.

Hauexek dira Europako populazioak behera egiten jarraitzearen arrazoiak: zuzeneko jazarpena, linea elektrikoetan elektrokutatu izana, habiak egiten dituzten tokiak asaldatu eta larre lehorrak eta gazteak hedatzeko beste habitat batzuk galdu eta narriatu izana.



© GREFA

Bonelli arranoa

Iberiar penintsulan ...

Iberiar penintsulan 733-768 bikote daude guztira; hego eta ekialdean dentsitate ona du, baina populazioa oso txikia da beste eskualde batzuetan, hain zuzen ere, Madril, Araba eta Nafarroan.

Mallorcan 1970 aldera galdu zen espeziea, Europa osoan harrapakinen aurka egon zen zuzeneko jazarpenaren ondorioz.

Nafarroan 70eko hamarkadan 7-8 bikote zeudela uste da, baina 90eko hamarkadaren hasieran jaitsi egin ziren eta hiru lurraldetan baino ez ziren geratu, eta azken urteetan haietako bakarra okupatzen dute.

Horrek esan nahi du % 75 baino handiagoko beherakada egon dela hiru belaunaldi baino apur bat gutxiagotan, batez ere elektrokutatuta/talka eginda hil zirelako eta zuzeneko jazarpena izan zutelako. 1991z geroztik espeziea kontserbatzeko neurriak

hartzen hasi ziren, eta horretarako, espeziea eta bere habitata babesteko legeak egin ziren, linea elektrikoak zuzendu ziren, eta zuzeneko jazarpena murrizteko eta bestelako oztopoak murrizteko neurriak hartu ziren.

Horrez gain, egiaztatu da **Madri- len** populazioak % 80 egin duela behera azken hiru hamarkadetan, eta lehen 15 bikote baziren, orain bi dira. Haiak desagertu izanaren arrazoi nagusiak, Nafarroan bezala, linea elektrikoak eta harraparien zuzeneko jazarpena dira.

Arabán dago Euskal Autonomia Erkidegoko ugalketa bikote bakarra, eta lurraldea partekatzen du Burgosekin (Gaztela eta Leon) eta Errioxarekin. Iberiar penintsulan espezieak daukan banaketa eremuko iparraldeko mugan dago.

Arabán espeziea desagertzeko egon diren arrazoi nagusiak dira habitata galdu izana eta gizakiek eragindako oztopoak eta heriotzak.


Bestalde, Andaluzian populazioa egonkor mantendu da azken hamarkadan; gaur egun 354 bikote daudela uste da (espainiar populazioaren erdia ia) eta gehienak Sistema Betikoan daude, Sierra Morenan ere bakar batzuk finkatu diren arren.

Andaluzia eta Murziako populazio horrek Espainia osoko maila altuena izateaz gain gaur egun balio ugaltzaile oso altuak ditu.

Hori dela-eta eskualde hori are garrantzitsuagoa da, Bonelli arranoaren etorkizunerako Espainian.

Laburbilduz, Andaluzia, Valentziako Erkidegoa, Murtzia eta, beharbada, Toledo, Ciudad Real eta Badajoz dira Bonelli arranoaren populazioaren eskualde bakarrak egonkortzat jo daitezkeenak. Aldiz, erdialde eta iparraldeko erkidegoetan (Aragoi, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxako iparraldea eta Madril) espeziea datozen hamarkadetan desagertu daiteke, joera negatiboarekin jarraitzen bada eta ugalketa parametroetan balio oso baxuak badaude.

Espainiako lehorreko abifaunaren atlas birtuala.
MNCN/CSIC-SEO/BirdLife



2010. eta 2012. urteen artean hainbat jarduketa egin dira LIFE BONELLI proiektua abian jarri baino lehen:

nola Madrilen hala Nafarroan eta Balearretan aldi horretan askatu egin dira itxian hazitako (GREFA, UFCS-LPO), habietatik erreskatatutako edo suspertze zentroetan (Katalunia, Valentziar Erkidegoa eta Andaluzia) sartutako zenbait ale.

Emaitzak oso pozgarriak izan dira, eta erkidegoen arteko lankidetzaz oso ona.

Proiektua martxan jarri aurreko esperimentu fase horri esker taldeek modu formalagoan planteatu zuten proiektu bat espainiar populazioa multzoan aintzatetsiko zuena, kontuan hartuz espeziearen populazio guneak metapopulazio bateko elementu gisa jarduten direla eta haien artean banakoak trukutzen dituztela.



LIFE BONELLI epe luzeko proiektua da, berritzailea eta erakargarria; lehenago inoiz ere ez da espezie hori berriz ere sartu eskala handian, hainbat autonomia erkidego integratuta.

BONELLI (LIFE12 NAT/ES/000701) proiektuak Europar Batasuneko LIFE finantza fresnaren laguntza dauka.

Haren xedea da bultzatzea Bonelli arranoak (*Aquila fasciata*) Espainian daukan populazioa, Madril, Araba eta Nafarroako guneak indartzeko programen bidez, eta haien aleak Mallorcan berriz sartuta, joan den mendean desagertu ziren han eta.

Jarduketa hauexek egingo dira 2013. eta 2017. urteen artean LIFE BONELLIin:

- Askatzea itxian hazitako txitak, naturatik erreskatatutakoak eta suspertze zentroetan berriz hezitako aleak.
- Itxuraberritzea espeziearentzat kalitatezkoak diren habitatak.
- Zuzentzea linea elektrikoak, espezieari eragiten dioten arriskua txikiagotzeko.
- Sentsibilizaraztea arranoak kontserbatzearekin zuzeneko lotura duten sektoreak eta gizartea oro har.



Jarraipena egin diezaiekezu LIFE BONELLIren jarduketa guztiei



www.lifebonelli.org



© Alfonso Llamas



Laguntzaileak:

